



## APAIZA ETA ERREGEA

Erdi aroan 871 urtean Euskal Herrian errge bat bizi zen. Erregea arroka harra zen eta ikus zer gertatu zitzaion.

Behin erregeak apaiz bat ekartzeko agindu zuen. Gurutzearen katea kentzeko esan zuen. Honela handik bi astetara apaiz bat ekarri zuten. Eta katea kendu eta erregeari eman zioten. Erregeak katea hartu eta bere lepoan ipini zuen eta tentoturik hau esan zuen:
- Jangoikoaren izenean munduko erreinu guztiak hartzen ditut.
Eta apaizak :
- Jainkoak ez du onhartuko.
Erregeak
- Eraman ezazue bere parroki santura.
Apaizak bere parrokian zer gertatu zitzaion esan eta beste apaiz batek irten zuen erregearen erreinurantz. Erregea poztu egin zen eta festa bat egin zuen, eta orduan ailgatu zen gure apaiza.
Erregeak
- Zer behar duzu nirekin?
Apaizak
- Hirekin ezer ere ez
Erregeak
- Orduan, zergatik etorri zara? Jakin daiteke?
Apaizak
- Ken ezazu gurutzearen katea
Erregeak:
-Ez eta pentsatu ere ez. Berakin erreinu guztiak hartu ditut eta ez ditut bartortuko
Apaizak:
- Jangoikoa eta zuk oso desberdianak zarete. Jainkoak behartsueri nahi dio ondo egin eta zuk dena nahi duzu zuretzat. Eta horrela handik aurrera, erregeak beti ondo egin zuen beti eta ez zen arroa izan.

5B

### KATUA

Katua beltzatua
eta mimatua
beti teilatuan
tximenea ondoan
Ay! nire katu mimatua!

### ELURREZKO GIZONA

Elurrezko gizona,
elurrezko botatxoak
zuri zurizko mendiak
txoitxo bat dago
kantari poz pozik

### GOTOIZKO LAINOA

Gotoizko lainoa
hondarrezko mendiak
zilarrezko izarrak
urrezko eguzkia
haizezko itsasoa eta
gotoizko lainoa
bai, gotoizko lainoa




Fletxak jarraituz, ordena itzazu hizkiak

## EGUN BAT MENDIAN

Behin mutil batzuk, futbolean zeuden jolasten. Oso onak ziren batzuk baino besteak , ez zekiten futbolean ganoraz jolasten; ostikadak jo, bultza egin, zankadilla ipini......Horrelakoak ziren mutil batzuk. Iñaki eta Pedro onenak ziren eta ganoraz jolasten zuten.

Behin lagun guztiak zelai batetara joan ziren jolastera. Zelai hura aldapada handikoa zen. Baloia, mutilak konturatu gabe zelai behera jausi zen. Mutilas atzetik joan ziren. Mitartean, baloiaren atzetik zihoazela, galduz joan ziren, eta balooa harrapatu zutemean ez zekiten non zeuden. Orduan mutil batzuk, Iñaki eta Pedrori esan zioten:

- Guk bilatuko dugu etxera joateko bidea

Eta Iñakik irrifarrez esan zien:

- Bai bai, bilatu, gu hemen egongo gara jolasean.

Eta horrela zazkarrak bidea bilatzen hasi ziren. Gaua ailegatu zen eta Pedro eta Iñaki beldurtzen hasi ziren. Orduan bidea bilatzen hasi ziren. Ehiztari batekin topatu ziren eta ehiztariak etxera eraman zituen. Etxekoak arduratuta zeuden.

Urrengo egunean zazkarrak ikusi zituzten tranpa batetan jausaita

5 Maila

Jose Luis Oñederra — Idurre Oñederra

Ainhoa Gurrutxaga — Edurne Goñi — Jon Lizarra

### LARROSA POLITA

La rrosa, zu gorri edo zuri
Beti polit
zu hor zaude beti geldi
zu hor eta ni hemen
beti elakarrekin larrosa polit

5 A

### GURE TXORIA

Txori zuri eta zoragarri
lainoa bezalako zuria
gure txori eta maitaggrri
kaiolatik ihes egin zuena
eta orain hilobian dagoena

Bat naiz eta zatiturik ikusten nauzu
Hil gabe ere errez jaiotzen naiz
Eta ezer jaten ez dudan arren zenbait gauetan
sabela betea dut. Nor naiz?

# JOLASAK




1.- Bere esnearekin gatzatua egiten da

2.- Ugaztun karrazkaria, beldurgarria

3.- Gauez ibiltzen den ugaztun bat

5.- Uretan ibiltzen da

4.- Tresnak gordetzeko erebiltzen da

6.- Karrerak egiteko erabiltzen da

Erakutz iezaiozu saguari gazta jateko bidea



# SEIGARREN MAILAKOEN LANAK — ABENDUA 1980

## ABESTIA

MENDIAN,LAHAR ARTEAN
AURKITZEN DA LORETXO BAT
AURREAN UMETXO BAT
LORETXOARI BEGIRA

LOREAK ESAN NAHI DIO:
"UMETXO,ASKA NAZAZU;
JAIO NAIZ LIBRE IZATEKO
ETA EZ LOTURIK EGOTEKO"



## GABON POEMA HOZBEROA

SUKALDEKO ENBOR
GORI SUTUA
MAHAI INGURUKO
SENDI BATUA
EGUN ILUN,HAIZE ZORROTZ
ELUR ZURI ETA IZOTZ
GABON BERO,GABON HOTZ



TXISTETXISTETXISTETXISTETXISTETXISTETXISTETXISTETISTEAK




-Gaur gauza eder bat ikusi dut periodikoan,Joxe.
-A,bai!Zuk idatzi duzuna polita da,bai.
-Ez,gizon,beste gauza bat askoz hobea.
-Zer?
-Urbiako gazta erdi bat,periodikoan bilduta.

---

-lehenago egon ahal zara inoiz juezaren aurrean?
-Bost urte hauetan ez,jauna.
-Beraz,bost urte hauetan ez duzu okerkeriarik egin?
-Ez,jauna,kartzelan egon naiz eta.

---

Xabiertxok sei urte dauzka;sumak egiteko behatzak erabili ohi ditu.
-Ea,-Galdetzen dio irakasleak-Zenbat dira zazpi eta lau?
Mutikoa pentsatzen gelditzen da;behatzei eragin...eta azkenean:
-Maixu Jauna,ez ote didazu gaizki galdetu?
-Oker?Zergatik,ba?
-Zazpi eta lau ezin daitezke sumatu eta...
-Ezin sumatu daitezkeela?
-EZ,Jauna.
-Zergatik,ba?
-Nola nahi duzu zuk suma hori nik egitea,hamar behatz bakarrik dauzkat eta.




---

# POEMA

BAI ALA EZ
EZ ALA BAI
BAI BAI BAI
NAHI DUT BAI
MUNDU GUZTIA
IZAN ANAI/
...
BAINA EZ EZ EZ
EZ DUT NAHI EZ
MUNDUA APURTU
BONBA ETA GASEZ.



EZ ALA BAI
BAI ALA EZ
BAI BAI BAI
NAHI DUT BAI
ASKATASUNA
EZ IZATEA SALGAI
...
NEKATU ARREN
NAHI DUT BAI
MUNDUA SALBATZEKO
HELDU GARAIZ.

BAI EZ BAI
EZ BAI EZ
KANTU HAU ULERTU
ENTZUNEZ
EZ ABAI EZ
BAI EZ ABAI
SILLOIAN JARRITA
OSO LASAI.
/...../

## E L K A R R I Z K E T A



-Tirrin..tirrinnnn!-telefonoak.
-Nor?
-Ola,zu al zara zure semearen ama?
-Zein seme?
-Zenbat seme dituzu?
-Bat.
-Ba,hori;jar al daiteke?
-Bai,baina nor zara zeu?
-Zurekin hitzegiten dagoena.
Amak orduan bere semeari:
-Hor "zurekin hitzegiten dagoena" deitzen den neska bat dago.
-Ola,Eugenia,zu al zara?
-Bai,bihar Ostirala da,
-Zelan dakizu hori?
-Gaur Osteguna delako;bueno,zurekin irten behar nuen baina eñin dut,nere amarekin joan behar dut eta.
-Gaur lehen aldiz inorekin irten gabe zerbaitekin irtetzen dudana.Agur.
-Agur.

ERBIA

TIRAGOMA HARTU ETA
MENDIRA HABIATU
HOTZA PASATU ETA
ERBIA AURKITU
GABONAK DIRA ETA
BIHOTZAK ALAITU
GURE ERBI GAIXOAK
BEGIAK TRISTE DITU.



ERBIA ETA EHIZTARIA

Erbiez hitzegiten hasi garenez gero,merezi du ondorengo gertaera hau kontatzeak ere.

BA zihoan behin ehiztari bat,bere eskopeta eta guzti taka-taka mendi aldera eta honi tira,hari tiro,edozein txoriño eta piperpotori tiro, azkenerako kartutxorik gabe gelditu.

Eta,suerte trarra ez bada!Orduantxe bere begien aurrean erbi belarrihandi bat,lasai asko,kartutxorik ez zuela baleki bezala.

Ehiztariari sartu zitzaion egon ezina eta kili-kilia ez da esatekoa.

Zer egin ez zekielarik apur baten egon ondoren,eskuak praka poltsikoetan sartu eta kerexa hezur batzuk somatu zituen hatzamar artean.Kerexa hezurrok eskopeta ahotik sartu eta...PAMMM!eta///PUMMMM/kendu zizkion belarrietako azkurok erbi burlatiari.

-Joan duk baina sustoederra zeramak!-zioen berekiko ehiztariak.

... ...

Orain arteko hau egia ala gezurra den bakoitzak pentsa beza.Ondorengoa hala ere harrigarriagoa da.

Udaberria heldu zenean han joan zen,berriz ere,gure ehiztari trebea Pammmm!pimmm!eta Pummmm!basterrak harrotzen eta uxatzen.Halako batean, sasi artetik erbi bat.

-Hor hago,belarri handi?-Hotsegin zion gure ehiztariak.

Ba al dakizue nola eta zertan ezagutu zuen lehengo erbia bera zela? Dirudienez,orduan bota zizkion kerexa hezurretatik bat belarritik sartu zion eta han zihoan erbi gaixua burua oker-oker kerexa landare bat belarrian zeramala.

ETA HORI HALA BAZAN SAR DADILA KALABAZAN///



LIBURUA

Haurrean liburua
ezin inolaz sartu burua
lehenengo kapitulua
da soratzeko inbentua.
Ixilik ingurua
beterik zerebrua
utzidena
eta banua

NEGUA

Negua heldu zara
elurra maramara
turroi goxoa janda
txanpan gardena edanda.

Gabonak heldu dira
Jesus ere jaio da
ospa dezagun batera
Gabonetako jaia.

Tanborrada badoa
kalean goitik behera
kanpoan dago hotza
goazen etxe epelera.



Udazkenean geunden
hura pasatu zen
orain neguan gaude
ezin egin ezer.
Hotz handia dago ta
etxean hoberem
ikastolara ere
ez joatea hobe.

DANAK EZIN DIRA

Gabonak heldu dira
uda etortzeko zain
uda heltzen denean
Gabonak berriz nahi
gure bizitza beti
badaukat bestea
denak ezin dira ta

HERRIA SUTAN

Pospolo baten erruagatik
dago herria su eta gar
guk itzaltzeko
egȧten dugu indar.
Ez dago ezer egiterik
ixilik egon behar
gaur triste daude
gazte eta zahar.

NEGUA

Mendiak zuriz jantzirik
neguak hurreratzen zaigu:
Zuhaitzak edurrez estalirik
txoriak joaten zaizkigu.
Gure etxean estufak jarririk
gorputzak berotzen ditugu.
Eta uda pasa badugu
negua erepasa beharko dugu.



MENDIA

Mendira joan nintzen
zestoakin eskuan
marrubiak batzera
joateko asmoan
otsoa irten zait eta
bide erdi-erdian
gosea daukala ta
adios segituan.

Txanogorritxu ere
etzuen jan eta
hik ere horrelaxe
esperantza baita
agur esan dit eta
aurrera joan da
hik huen izerdia
ebaporatu data.





— Horiz + Gorriz O Berde argiaz = marroiz
| Laranjaz △ Urdinez ϕ Berde ... □ Beltzez

# ZAPATZTXO BAT NAIZ

Tolosako zapategi fabrikan nago.Ni zapatatxo polit bat naiz.Ni oraintxe bertan jaio naiz.Nire kolorea urdina daeta nire eskuak zuriak.Oraindik ez nautela bukatu entzun dut.Makina batetan ipini naute eta hau bueltaka hasi da.Hemen nirekin batera nire bezalako zapata bat ikusi dut.Beste zapata mota asko ere ikusten ditut.Ni bezalako zapatarekin hizketan hasi naiz esanaz:

--Zuk nola duzu izena?
--Nire izena Jaimita,eta zurea?
--Nirea Jaime da.
--Horrelako izenak dugulako,anaiak izango al gara?
--Ez dut uste zeren eta zuk ez duzu nire hantzik.
--Eta zuk zelan dakizu ez dugula hantzik?
--Nik hori ispilu hortan ikusi dudalako.
--Bueno , nik badkit ez dugula itxuran hantzik,baina gure izenetan bai
--Horrek ez du zerikusirik.
--Bueno utzi dezagun gai hau.Ba al dakizu zeren makina den hau?
--Ez dakit baina laister jakingo dugu.



Makinaren ate txiki bat ireki da eta biok barrura sartu gara.Biok beldurturik gaude.Jaimita nire aurrean jarri da pasillo polit batetatik pasatzen Biok elkar heltzen gara.Makina hau iltze makina bat da.Laister txanda ailegatuko zaigu eta ez dago atzera egiterik.Zapata denak ohiuka entzuten ditugu,iltzeak sartzean.Jaimitari iltzeak mina eman dio eta nigarrez hasi da.

--Ez ezazu nigarrik egin.Esan diot nik.
--Baina ipurdian pupa egin dit.Erantzun dit,Jaimitok nigarrez.
--Baina ez baduzu indizio edo iltze hauek zure gorputzeansartzen gaixotu egingo zara.Honek Jaimitari heldu dio baina niri ez dit heldu.Hau ikusi dudanean nigarrak irten dit,eta Jaimitari ere bai.
--Agur Jaimita.Esan diot izkutatzen zihoan bitartean.
--Agur Jaime.Erantzun dit, jaimitak,malkoak musuzapi zuri batez igurtzitzen zituen bitartean.
--Ikusiko al gara?
--Hori ez dakit.
--Agur ez zaitut ahastuko.
--Ezta nik ere Jaimita.

Biok negarrez gelditu gara.Nik,betiko banatu gerala , pentsatu dut,baina ez da horrela izan.Besta hutsune edo leku batetatik esku bat irten daeta honek eskuetatik helduaz kanpora atera nau.Gero buruz behera ipini naute eta hemen numero bat ipini didate,uste dudanez numeroa 35a da.
Gero kaja apainbatetan sartu naute.Bertan(kaja barruan), zapatatxo apain bat negarrez entzun dut.

--Ez ezazu negarrik egin.

Baina ez dut lagunik,orain,nik maite nuen pertsonagatik banatu nautelako.
Baina ez ezazu negarrik egin , niri ere nik maite nuen zapatatxo batetatik, banatu naute.

--Baina zu,ezal zara Jaime?
--Bai ni Jaime naiz.Eta zu ez al zara Jaimita?
--Bai ni Jaimita naiz.Lehenengo pareja gara.Biok numero berdina dugu35a.
--Maite al nauzu?.Galdetu nion nik Jaimitari.
--Nik asko,ni baino gehiago maite zaitut,Hobeto esanez nere bizia baino gehiago maite zaitut.
--Hori egia al da?
--Bai nik kaso honetan,ez dut gezurrik esaten.Baina zuk maite al nauzu?
--Nik ere asko maite zaitut.Erantzun nion,nik ,begietako malkoakmusuzapia igurtzitzean.Bueno benetan maite ba nauzu , nahi al duzu nirekin ezkontzea?
-Bai.Erantzun zidan,Jaimitok,galdera bukatu baino lehen musua emanaz.
--Bueno abadeari esatea joan behar dut,meza preparatzeko esatea.

Bai eta bitartean ni soinekoa erostera joango naiz.Abuztuaren lauan biok bat egingo gara eskonduaz.
Abuztuaren 4an ezkondu egin ziren.Jaimita oso apain jantzirik zihoan eta ni ere bai.Ezkontza bukatu zenean,bazkari eder bat egin genuen.
Gerora bi ume edúki genuen eta gure historia kontatu ziegun suaren alboan.

7. Maila

# GURUTZEGRAMA



| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H | O | M | N | P | A | R | I | S | E |
| H | E | I | J | K | R | L | S | O | S |
| O | P | L | Q | R | T | A | U | V | T |
| D | S | Y | S | Z | A | H | G | P | O |
| I | U | L | H | I | C | B | U | A | C |
| K | L | B | O | N | N | P | U | T | O |
| G | F | E | L | T | S | K | R | E | L |
| L | H | Ñ | J | I | A | E | I | N | M |
| B | E | R | L | I | N | S | U | A | O |
| P | H | B | U | D | A | P | E | S | T |

Bila itzazue Europako 10 Kapital hauek:

- HELSINKI
- BONN
- PRAGA
- BUDAPEST
- ATENAS
- PARIS
- DUBLIN
- BERLIN
- ESTOCOLMO
- OSLO

Ba al dakizute zer gauza den: gehiago sikatzen denean bustiagoa dagoela?

(Toaila)

## ZALDIAREN PAUSOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I | HEN | KO | GA | EL |
| ▨ | KA | GO | DI | ▨ |
| AK | BAR | TIL | NES | IZ |
| HU | ▨ | TO | ▨ | AN |

Soluzioa: [scribbled out]

Elgoibarko neska-mutil gaiztoak mendian

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | P | B | K | S | T | D | U | E | X | F | E | Z | J | A | H | B | A |
| J | M | O | R | K | A | I | K | O | J | T | K | P | L | D | M | M | R |
| N | S | O | T | P | U | R | X | E | A | S | Z | T | A | O | U | B | A |
| D | T | O | E | U | F | X | G | K | H | Z | I | A | R | J | B | K | L |
| L | D | N | M | E | N | F | A | O | G | P | H | U | R | I | S | J | A |
| K | H | R | L | J | H | R | Z | + | I | A | R | R | A | Z | I | N | R |
| O | I | A | P | K | A | R | L | S | H | T | N | U | O | X | | Z | A |
| B | P | D | R | K | E | S | F | + | G | U | K | A | L | A | M | U | A |

Zazpi mendiren izenak daude hizki salda hontan. Bila itzazu

Soluzioa *

* MORKAIKO

ONRA

KARAKATE

KARZTIARRAZI

UROM

ARALAR

KALAMUA

8. maila

UDAZKENA

Horriak
horri-hori-berdexkak
krax-krax
egiten duteneko horriak
haizeak gora-beheraka
horriak

Haizea
hego-haizea
haize gogorra, beroa
euriz bustia
xiri-miri euriak
euri bigunak

Zuhaitzei
malkoak darie
malko horiak
lurra betetzen duteneko malkoak
Zahaitzak bilutsik,
erroparik gabe,
malkorik gabe.

Udazkena
tristea,
hutsa.

Lorea Gorostiaga

ZU ZERA

Zu zara
bai,
zu,
nire biziaren irakasle
nire amodio sekretua
nire bihotzaren jabe bakarra
nire irrifarraren sortzaile
zu zara,
bai,
zu,
nire begien finkaleku
nire kontzientzi janen izpilu
nire sekretuen partaide
nire erabakiaren ejekutatzaile
zu zara,
bai,
zu,
nire azken pausoaren testigu
nire hilobi goxoa
zu zara
bai,
zu
itsasoa.

Nerea Lariz

ZERGATIK ?

Goizetik gauera
gauetik goizera, beti triste
Zergatik?
Bai beti triste
Goitik behera
eskubitik ezkerrera
dabilen txo-
riaren bezala
da. Ez, ez txo
rikk ez dabiltza
goitik behera,
eskubitik ezke-
rrera, ez, ez
ez, inoiz ez,
inola ez, txo-
riak loturik
daudd. Zergatik?
Askatasunaren
falta ote?. Bai,
triste, loturik,
askatasunik ga-
be bizi gara.

denok, bai
txoriak ere bai
Zergatik? Bai, ez
zergatik? Urtean
neguak

nire ilea
zuritzen duen
bitartean, ez dut
ez diruaren ez
ogiaren eta
ez ardoaren
beharrik

izan, baina
askatasunarena
Bai, bai, bai
Zergatik?
Askatasuna,
batasuna, el-
kartasuna be-
harrezkoak di
ra. Baina orain
honek ez du
ezertxo ere
balio...
Zergatik?...
Terrorismoa,
terrorismoa,
terrorismoa.
Bai, baina
Zergatik? Hilketak
Azkenean Bortxaketak
Denok ba- kean...
Non dago errespetoa? Ez,
ez, ez dago horrelako-
rik. Zergatik?

Miren Gurrutxaga

PSIKIATRARIK EZ

Psikiatra batekin hitzegiten ari naiz. Nik ez nuen beraren gana joateko beharrik, baina han nago. Badakit gertatutakoa egia dela, baina ez didate sinesten. Psikiatra bat behar nuela zioten. Nik ez dut haren beharrik. Gertaera honen kausa hau da:

Gau batetan, egunero ohitura dudan bezala, leihoko pertsiana herstera joan nintzen. Tira egiteko zoka heldu nuen eta mementu batean zeharo harriturik gelditu nintzen. Gau hartan hilargi betea zegoen baina... Nik ikusi nuena ez zen hilargi betea izan, bi baizik. Mementu batez begiak bi eskuez tapatu nituen. Segundu batzuk geroago, berriro ere zabaldu nituen, baina bi hilargi argitsu eta dizdiratsuek han jarraitzen zuten. Lasterka eta bihotza taupadaka nuela, sukalderantz jo nuen. Presaka eta hitzak ezin ahozkaturik, ikusitakoa kontatu nien. Haseran denek farreari ekin zioten. Leihoa zabaldu genuen. Denon begien aurrean, hilargo oso bat besterik ez zen ageri. Lepoa makur makur eginik berriro ere logelara sartu nintzen. Kuriositateak eraginik, leihora urreratu nintzen. Benetan harrigarria! Bi hilargiak han zeuden, baina oraingoan ez ziren beteak, erdiak baizik. Zoratu beharrean aurkitzen nintzelarik, bigarren aldiz ere sukalderantz abiatu nintzen. Pasabidetik nindoala, etxeko denak farre algaraka somatu nituen. Oraindik ere, lehen gertaturiko arazoa komentatzen ziharduten. Ni, zer egin ez nekiela, nire logelara sartu nintzen. Urrengo goizean, larunbata zenez gero, ez zegoen klaserik. Hau dela-ta, bestetan baino beranduago jaiki nintzen.

Egia esan, erlojuak iratzarri ninduen. Gosaldu ondoren, etxekoei gertakizunak kontatu nizkien. Oraingoan behintzat serio samar interpretatu zuten gauza. Neurriak hartuko zituztela esan zidaten eta orain hemen nago. Toki hau ez da batere atsegingarria. Galdera pila bat egiten dizkidate. Test antzeko horri batzuk betearazi dizkidate. Baina nire ustez, alferrikako lana da. Nik ikusi nuena erreala zen, han zegoen. Sorginkeriazko gertaera bat izan zen. Lepo bakarra izan arren bera ere jokatuko nuke.

Denbora aurrera doa eta,azkenez, psikiatra hau ere nire aurka jarri da. Burua trastornaturik dudala dio. Denak daude nire aurka, denak ditut etsai, baina beraiek diotena gezurra dela badakit. Nik ez dut psikiatra beharrik.

Arritxu Etxeberria

## SORGINKERIA BAT

Fraka berriak erostearen nahia da buruan zehar jirabiraka ari zaidan ideia bakarra. Dauzkadan frakak urraturik aurkitzen dira, zahar-zahar eginak, agure zimelak bailiren.

Kaletik nihoa zer-nolako frakak erosiko ditudan gogoetan ari naizelarik. Jendeak ni ikustean farre egiten duela dirudi. Erakusleiho batetara hurbiltzen naiz ea nire pertsonan zerbait arraro ikusten dudan begiztatzera. Nire aurreko figura ikusten dut isladaturik, ez dakusat ezer estrainorik. Nire gorputzari bira eragin diot. Odola masailetara nola hel tzen zaidan sentitzen dut. Nire pauso geldiak urrats azkarretan eraldatu dira. Lotsak gogorki eraso nau. Soinean daramatzadan prakak azkenetan zeudela jakitun nengoen, baina apurketa demasa hau, hain supitoki gertaturik eta gainera kale erdian...

Azkar askorik jertsea kendu eta zuloa ikusten ez den eran jarri dut. Nire pausoek erostetxe handi horietako batetara eramaten naute. Fraken sailera hurbiltzen naiz. Fraka beltz eta zuri, haundi eta txiki, taila guztietako frakak. Arranpraku bat hartzen dut. Probalekura hurbiltzen naiz. Fraka berriak ipintzen ditut. Frakak, orduan, garraisi eta ostikoka hasten zaizkit

- Zer uste duzue zuek?. Guk askatasuna nahi dugu. Geure artean agon nahi dugu, ez zuetako pertsona nazkagarrien artean: ASKATASUNA !. Erostetxe guztian hitz hau entzuten da. Fraka madarikatu hauek. Ni ere ostikoka hasten naiz. Biok gabiltza ostikoka. Garaile ni irtetzen naiz. Frakak hartu eta seriotasun guztiarekin enplegatu batengana noa. Nire ezpainak zabaldu eta honelako hitz hauek ahozkatzen ditut:
- Adizu, fraka hauek hitz eta ostikoka aritzen dira. Bai,bai... Eh?... Ea adarra jotzen ari naizen?. Ez, ni gizon serioa naiz. Bai, gizon serioa. Frakak gustatzen zaizkit. Baina zenbat hizkuntza menderatzen dituzte?. Oso kuriosoa naiz. Bai, zeren orain Euskal Herrian elebitasun problematika haundia daukagulako, eta atzerrira zoazela, ingelesa dela ez dela, zoratu egiten zaituzte.
- Bai eh?
- Eta gainera...
- Bai, hau da, har ezazue.
- Eh? Zer zabiltzate? Laga nazazue bakean. Ni gizon umila naiz. Ni fraka batzuk soilik erosten ari nintzen eta zer da hau? Ai...

Kotxe batetara sartzen naute. Ordu laurden barru gelditzen gara. Gela batetara sartzen naute. Gelan betaurrekodun gizon batek zera galdetzen du:
- ¿Caso?

8. maila

- Afirma que unos pantalones le han pegado y hablado.

Eta fraka batzuk eristen ari izateagatik hemen ari naiz. Zoroetxe batetan. Alboan dauzkan frakak isiltasun osoan, nigarrez daudela dirudite. Eta bakarrik nagoenez, hizketakdian jarduten dugu askotan. Kanpokoek bakarrik hitzegiten ari naizela pentsatzen dute. Baina ni frakekin ari naiz. Eroak normaltzat jotzen ditugun horiek dira. Bai, kanpokoak dira eroak.

Ikerne Del Valle



Hemen zenbait tresnen izenak dituzu. Ipin itzazu dagozkion bost zutabe hauetan

| TRESNAK | KORDA | HAIZE EGURRA | HAIZE METALA | KOLPE MUGATUA | KOLPE MUGAGABEA |
|---|---|---|---|---|---|
| Xilibitua | | | | | |
| xirula | | | | | |
| tinbala | | | | | |
| xirribita | | | | | |
| oboea | | | | | |
| ingeles adarra | | | | | |
| arrabita | | | | | |
| doronba | | | | | |
| dronpeta | | | | | |
| klarinetea | | | | | |
| bonboa | | | | | |
| hirukia | | | | | |
| xilofonoa | | | | | |
| behe klarinetea | | | | | |
| txeloa | | | | | |
| fagota | | | | | |
| tronboia | | | | | |
| metalofonoa | | | | | |
| platereska | | | | | |
| Kontrabaxua | | | | | |
| Kontrafagota | | | | | |
| tutua | | | | | |
| gon | | | | | |

Bila itzazu giza ahotsaren zatiketak

Zuriak: . . . . .

. . . . .

. . . . .

Lodiak: . . . . .

. . . . .

. . . . .

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | O | P | R | A | N | O | L |
| B | A | P | E | L | R | I | K |
| R | A | Z | U | K | O | N | T |
| M | I | R | O | S | N | A | R |
| E | Z | O | I | K | E | S | A |
| R | I | T | A | T | T | O | L |
| D | U | B | A | X | O | I | T |
| I | S | O | P | R | A | N | O |

1º Esan ezazu 1600-etik - 1750. urte arte doan garaiari nola deitzen zaio.......

2º Mozart zein garaitakoa izan zen.
. . . . .

3º Ja bilatzen dituzun Erromantizismo garaiko 10 musikagileen abizenak

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | R | A | H | M | S | A | R | O | I | S |
| A | W | U | Z | I | T | E | B | E | E | C |
| R | E | C | A | T | B | I | D | O | F | H |
| R | U | G | E | E | C | H | E | I | C | U |
| O | J | U | W | A | G | N | E | R | H | B |
| K | L | A | S | I | Z | I | S | M | O | E |
| O | I | B | E | R | L | I | O | Z | P | R |
| M | S | T | R | A | U | S | S | O | I | T |
| E | T | S | C | H | U | M | A | N | N | U |
| N | Z | A | K | E | L | I | M | O | Ñ | I |
| D | E | L | S | S | O | H | N | U | P | A |

1 -
2 -
3 -
4 -
5 -
6 -
7 -
8 -
9 -
10 -

---

Bila itzazu honako musika-lan haiek egin zituzten musikagileen abizenak.

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| R | A | V | E | L | B | A | T | C | H | A | I | K | O | V | S | K | Y |
| I | E | C | I | D | V | I | E | F | B | E | E | T | H | O | V | E | N |
| M | O | Z | A | R | T | I | O | G | U | H | U | J | O | K | I | L | I |
| S | G | A | M | E | D | A | V | N | I | D | V | O | R | A | K | E | D |
| K | O | V | I | I | T | Ñ | E | A | R | R | I | A | G | A | A | R | O |
| Y | K | O | R | S | A | K | O | V | L | D | I | O | W | U | B | O | R |

1. Bolero (euskalduna da)
. . .

2. Intxaur haustaile (Cascanueces)
. . .

3. Mundu berriaren Senfonia (Sinfonia del Nuevo Mundo).

4. Scherezade

5. Igor Printsea (El Principe Igor)
. . . .

6. Trineoan ibilaldi musikala (Paseo Musikal en trineo)

7. Lau urte-haroak. (Las cuatro estaciones del año)

8. Pozaren garaipena (9ª Sinfonia)
. . . .

9. Baserria (El caserio)
. .

10. Esklabu zoriontsuak. (Los esclavos felices)